

HBko zinegotzi baten autoa erre dute Billabonan

BILLABONA

Claudio Etxeberria Billabonako Herri Batasunako zinegotziaren autoak su hartu zuen atzo goizaldean. Etxeberria zinegotziaren etxearen aurrean aparkatuta zegoen kotxea goizeko 5.30etan agertu zen sutan.

Auzoko batek Ertzaintzara deitu zuen, baina suhiltzaileek sua itzali orduko autoa erabat kiskalita zegoen.


Ertzaintzak sua zerk eragin zuen ez dakiela esan duen arren, Herri Batasunak eraso izan dela salatu du prentsa ohar baten bidez.

Azken aldian bere militanteen eta kargu publikoak dituzten kideen aurka egin diren eraso guztiak, HBren ustez, «ez dira kasualitatez izan, Euskal Herriaren aurka dagoen gerra zikinaren adierazpenak baitira».

Herri Batasunaren iritziz, «Estatu terrorismoa eta gerra zikina ez ziren GALEkin hasi eta bukatu, Euskal Herriaren aurka Estatuak diseinaturiko estrategiaren barruan jarraitzen dutelako. Ezker abertzaleak erakutsi duen irimotasuna ikusita, Estatuak, ezinean, mendekua hartzen du».

Eraso hauekin batera, Joxe Mari Olarra Mahai Nazionalako kidearen aurkako atentatu saioa eta neska batek Iruñean jasan zuen bahiketa eta erasoak estrategia berean kokatzen ditu HBk.

«Honezkerok, jakin behar harko lukete honela ezin izango dutela gure borroka ezeztatu», dio HBk, «indarraren arazoia erabiltzeak ondorioz gatazka luzatzea dakar soilik, eta ez Euskal Herriaren askatasunaren aldeko ahotsak isilaraztea».



Iturriagaren senideak eta Euskaldunako ordezkariak atzoko prentsaurrekoan.

X. SIMAL

Iturriagari ez diote 60. artikulua aplikatu nahi Espetxe Erakundeek

Aske utziko duten ala ez datorren astean erabakitzea espero da

Espetxe Erakundeetatik 60. artikulua gaixotasun psikikoa duten presoiei ezin aplikatu zaiela esanez erantzun diete Jon Iturriaga aske utzeko eskakizunei. Erantzun hau epaileak Iturriaga aske utzi ala ez erabaki behar duen unean iritsi da. Senideak-en ustez «gezurretan» ari dira, antzeko kasuak lehenago ere izan baitira.

IÑIGO OLABARRI / BILBO

Paz Fernandez Felgerosok —Espetxe Arazoetarako estatu idazkariak— eta David Beltrane —Espetxe Erakundeetako zuzendari orokorrak—, Jon Iturriagaren kasuan ezin daitekeela 60. artikuluekin kartzelatik atera azaldu dute bi idatzirenen bidez. Hau da kartzelako instituzioetatik Gasteizen Giza Eskubideen aldeko batzordeak egindako eskakizunari eman zaien erantzuna. Hau agertzeko aipatu duten arazoia, lege hau ez dela baliagarri gaixotasun psikikoa dutenentzat.

Senideak-en ustez, Fernandez Felgeroso eta Beltrane eman duten arazoia ez da zuzena. «Zera esan beharra daukagu idatzi hauen aurrean. Batetik, Paz Fernandez Felgeroso eta David Beltrane, ezjakin batzuk direla gutun horretan 60. artikulua gaixotasun psikikoen kasuan onargarria ez dela esatearren». Araudiak ez duela gaixotasun arteko bereizketarik egiten erakusteko artikulua irakurri eta gero aurrera egin zuen bere kritikarekin. «Gezurti batzuk direla esan behar dugu, aurrekariak baitaude gaixo psikikoetan ere aplikatu dela erakusten dutenak».

Bestalde, prentsaurrekoan zeuden Euskaldunako langile ohiak kexu azaldu ziren Xabier Markiegi arartekoak beraiekin izan zuen jarrerarengatik. Inola konpromezurik hartzeko eskatu ez zioten arren, beraiekin biltzeari uko egin zion honek. Berari ez dagokion gai bat dela argudiatu zuen.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordeari ere dei egin zioten atzo emandako prentsaurrekoan Senideek. Jon

Iturriaga aske uztearen aldeko iritzia plazaratu zuen batzordeak eta orain horren alde egin eta presio bideak erabiltzeko eskatu zieten senideek.

MOBILIZAZIOEKIN JARRAITUKO DUTE

Jon Iturriagaren ahizpak prentsaurrekoan adierazi zuenez, egin dioten azken bisitaldian kartzelako erizaindegian zegoen, «oso gaizki eta hitz egiteko gogorik gabe». Egoera honen aurrean, bere lagun bat ondora eraman diezaioten eskatu zion espetxe zuzendariari eta eskakizun hau onartu egin zioten. Hala ere, nahi dutena «Jon etxera pertsona bat bezala itzultzea da, bere gaixotasuna hobetzeko girorik onena etxean aurkituko duelako».

Hori dela eta, mobilizazio gehiago antolatu dituzte Senideek eta Euskaldunako langile ohiak. Datorren ostegunean edo ostiralean Logroñora joango dira espetxe zuzendariarekin eta Iturriagaren kasua daraman epailearekin elkarriketatzea lortzeko asmoz. Ostiralean kontzentrazioa egingo dute Arriagako enparantzian.

Rosa Zarraren familiak proba gehiago egiteko eskatu du

DONOSTIA

Rosa Zarraren heriotzaren inguruko ikerketarako proba gehiago egiteko eskatu du Donostiako Epaitegian akusazio partikular moduan Zarraren familia ordezkatzeko duen Iñigo Iruin abokatuak. Ertzaintzengandik jaso zuen pilotakada eta bere heriotzaren arteko erlazioa frogatzeko ikerketak eskatu ditu familiak. Arantzazuko Amaren Ospitaleari eta Bartzelonako Hospital Clinic Provincial zentroari Rosa Zarraren historia medikoa galdatzeko eskatu du familiak. Arantzazuko ospitalean Zarra zaindu zuten 12 medikuei ere deklarazioa hartzeko eskatu du.

Akusaziok eskatu du Zarra zauritu zuen pilota jaurti zuen ertzaina nor izan zen jakiteko egin dituen ikerketei buruz Ertzaintzari galdetzeko eta ekainaren 22an izan ziren istiluetan nortzuk izan ziren uniformeak eskopetak zeramatzen ertzainak.

Ertzainek erabili zituzten armen ezaugarriez ere jakin nahi du akusazioak, arma horiek erabiltzeko irizpideak zeintzuk diren eta armen erabileraz ertzainek dituzten instrukzioak. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak pertsona bati pilota bat jaurtitzeko gutxienezko distantziak duen informazioa ere eskatzen du akusazioak. Goardia Zibilak arma horien arriskugarritasunaz, tiroaren distantziak, piloten abiaduraz eta gizaki baten gorputza jotzean izan ditzakeen ondorioen gainean ikerketak egin ditzan eskatu du Iñigo Iruinek Zarraren familiaren izenean.

Gertaeren lekuko izan ziren 11 pertsona ere deklaratzera deitzeko eskatu du akusazio partikularrak.

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

GIPUZKOAKO HEZKUNTZA LURRALDE ORDEZKARITZA

Abuztuaren 30eko 11etan Lasala 4 enparantzako Informazio Bulegoan, irailaren 1ean Ikastetxera joan behar duen Maisu-Maistren Kidegoko ordezkapen izan-gaien deialdia egingo da. Esleipena abuztuaren 31n goizeko 9etan egingo da Usandizaga B.I. an (Pio XII enparantzian, z/g).

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA

MAISU-MAISTREN AUKERAKETA


Datorren uztailaren 27an, osteguna, Informazio Bulegoan (Lasala Enparantza, 4 - behe) behin betiko destinoa ez duten desberdinen aukeraketaren egutegia argitaratuko da. Destinoaren aukeraketa abuztuaren 25an hasiko da.

DELEGACION TERRITORIAL DE GUIPUZCOA

ELECCION DE MAESTROS

El próximo día 27 de julio, jueves, se hará público en la oficina de Información (Plaza Lasala, nº 4-bajo) el calendario de elección de los diferentes colectivos que carecen de destino definitivo. La elección de destino comenzará el día 25 de agosto.

LANBROA



kafetegia
edaritegia

konsituzio
plaza 5
ff.: 42 19 58
DONOSTIA